

Euskadiko Kooperatiben Lege glosari iruzkina

Miren EPELDE JUARISTI*

Lan kontratuko bitarteko irakaslea eta Doktoregia
Enpresa Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibila
Euskal Herriko Unibertsitatea/ Universidad del País Vasco (EHU/UPV)

Euskadiko Kooperatiben Goren-Kontseiluak (aurrerantzean EKGK) Euskadiko Kooperatiben legeari buruzko glosa argitaratu berri du. Elkarte honen sorrera Euskadiko Kooperatiben 1/1982, otsailaren 11, legearekin eman zen eta ordudanik Euskadiko Kooperatibismoaren egituraketan lanean dihardu. Bere haztapenetan Euskadin kooperatibismoaren antolaketaren alde aritu zen, Kooperatiben Federazioak martxan jarriaz eta EKGK eremu internazionalen ezagutaraztera eramanez. Ondorengo urtetan Kooperatiben Federazioek beren jarduna martxan jarri zuten. Horrela, EKGK mugimendu kooperatiboaren kezka zein proposamenak kontutan hartuz, Euskadiko Kooperatiben 4/1993 legearen aurreproiektua aurkeztu zen. Denborak aurrera, 4/1993 legearen babesean, 1996 urtean, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioaren eraketa eman zen eta beraz, EKGK bere funtzioen egokitzapena eta barne antolaketa berria burutu behar izan ziotuen.

Glosak oinarritzat hartzen du 11/2019 Legea, abenduaren 20koa, Euskadiko Kooperatibena. Honez gain, kontutan izan du ere 5/2021 Legea, urriaren 7ko, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko, 11/2019 Legea aldatzekoa. Lan honek Euskadiko Kooperatiben legea interpretatzen du, kooperatiben egunerokotasunean sortu daitezkeen zalantzei irtenbidea emateko lagungarri izan nahirik. Hein batean Euskadiko Kooperatiben Lege berriaren (aurrerantzean EKL) hitzaurrearekin bat egiten du liburuak. Lan hau hainbat autoreren ekarpenez osatua dago, hain zuzen 33 dira bertan aurki daitezkeen lanak. Lehen ekarpenak EKL-aren egituraketa eta funtzionamenduaren ingurukoak dira eta ondorengoak Kooperatiba mota desberdinen arauaketa lantzen dute. Glosaren ekarpen teorikoen artean patroi berdin bat jarraitzen da, hots, legearen interpretazio egokia egiteko artiku-

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Miren Epelde Juaristi. – miren.epelde@ehu.eus – <https://orcid.org/0000-0002-7993-0467>

Nola aipatu / How to cite: Epelde Juaristi, Miren (2022). «Euskadiko Kooperatiben Lege glosari iruzkina». *GIZAETKOA - Revista Vasca de Economía Social*, 19, 235-238. (<https://doi.org/10.1387/gizaetkoa.23941>).

Jasotze-data: 2022/09/28; Onartze-data: 2022/09/28.

ISSN 0214-9001 - eISSN 2444-3255 / © 2022 UPV/EHU



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

luen banakako azterketa burutzen da eta legedia berriak ekarri dituen berrikuntzak nabarmentzen ditu. Honez gain, berrikuntzaren aplikazio praktikoari buruzko azalpena ere ematen da. Berrikuntzen interpretazioari hitzak jartzea positibotzat jotzen da, izan ere, askotan legearen benetako esanahia zein den jakitea zail egiten da. Horrela, neurri berritzaileen artean aldaketa guztiek ez dute gizartean eragin berdina izango baina egoki ikusten da glosak legearen interpretazio orokorra burutu izana.

Ekarpenen artean, aspektu desberdinei eragiten dien elementuan aurki daitezke. Horrela, Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren egintzen aurkako helegiteen ezaguera eta ebazpena Merkataritzako Epaitegien esku utzi dela jakin daiteke ikerketaren bitartez. Ildo beretik, Erregistroari izaera publikoaren aitortza eman zaiola ere adierazten da, interes legitimo oro duen pertsona bertaratu daitekeelako, nahiz eta honek praktikotasunean aldaketarik eragin ez. Berrikuntzen aipamenarekin jarraituz, pertsona bazkideen figuraren inguruko aldaketari ere so egiten dio glosak. Orain kooperatiba osatu dezaketen pertsona bazkide mota desberdinen aitortza modu argiagoan egin dagoela ikus daiteke. Honela, pertsona bazkide kooperatzailea, pertsona bazkide ez-aktiboa, eszedentzian dagoen pertsona bazkidea, pertsona bazkide laguntzailea eta kooperatiba mixtoen kasuan sozietatezation titular izanik boto eskubidea duen bazkidea desberdinu daitezke. Liburuak generoaren inguruko aurrera pausoak ere nabarmentzen ditu, pertsona bazkideari erreferentzia egiten bait zaio eta ez soilik bazkide terminoari, hau da, gaztelaniaz *socio* deritzon figurari. Aipamen hau egitea gizartearentzat eraginkorra izan daitekeela uste da.

Bajan eman nahi den bazkidearen arauketaren baitan egon diren aldaketak ere jaso ditu glosak. Modu honetan, jakin da pertsona bazkideak borondatezko baja egikaritzeko eskaera egiteko errespetatu beharreko epea laburragoa dela aurreko legeak arautzen zuenarekin alderatuta. Eta gaineratzen da pertsona bazkidearen borondatezko zein nahitaezko baja eskaria bidezkoa den edo ez adieraztea administrazio organoari dagokiola. Kooperatiben organoei dagokien arauketan ere berrikuntzak izan direla ikus daitezke lanean eta horren arabera jakin daiteke organoen arauketa sistematizatu bat jaso dela. Alegia, organo sozial nagusiak batzar orokorra eta administrazio organoa izango direla eta bestelakoak hautazkoak. Modu honetan, kooperatibetan pertsona bazkideek erabaki dezakete organo desberdinen eraketa burutzea, baina ez dira legez horretara behartuta egongo.

Erregimen ekonomikoaren inguruko argibideak ere jaso dira ikerketan eta esan daitezke glosaren puntu esanguratsuenetarikoa dela, izan ere, 2008an jasandako krisiak lotura zuzena izan zuen, orduko kooperatiben erregimen ekonomikoaren zalantzazko arauketarekin. Hots, erregimen ekonomikoaren idazketa ez zen egokia eta ondorioz burututako interpretazioak ere gizartean eragina izan zuen. Legearen ziurgabetasunak hutsu-

neak azalarazi zituen eta horregatik, krisi ekonomikoaren aurrean kooperatibetako pertsona bazkideen erantzukizunaren norainokotasuna ezbaian jarri zen. Hori dela eta, EKL berriak araututakoa modu argian azaltzen du glosak. Horren harira, kooperatiba bera izango da bere ondasun guztiarekin, oraingo eta ondorengoekin, zor sozialen aurrean erantzungo duena. Modu honetan ulertuz pertsona bazkideen erantzukizuna mugatua dela. Galeren egozte kasua korapilotsuagoa izan da beti, izan ere, egozpenak bazkideen erantzukizuna mugagabe bilakatzeko aukera ematen zuen. Lege berriaren arauketaren arabera eta liburuan jasotzen den bezala, kasu honetan ere, bazkideen erantzukizuna mugatua izango da, beti ere, kontutan izanik kooperatibak legez edo estatutu bidez galdatutako kapital sozial minimo bat errespetatu beharko duela. Honek berekin bazkideen aportazioen gutxitzea ekar dezake eta hori dela eta, bazkideei estatutuetan ezarritako bazkide izaera eskuratzeko egindako aportazio minimoa mantentzeko eta ondorioz bazkide izaera bermatua izaten jarraitzeko, aportazioa birjartzeko aukera emango zaie. Berrikuntzen artean bada beste bat, zeinaren arabera, bajan ematen den pertsona bazkideak harreman korporatibotik kanpoko izaera duen kontratu edo obligaziorik bereganatu bazuen pertsona bazkide aktiboa zen unean, baja eman ondoren ere obligazio edo kontratu horrekiko erantzukizuna izaten jarraituko duen.

Fusio eta eszizioaren eremuan izaera eraginkorra duten aspektu teknikoek gain, fusio berezien kasuan kooperatibak izaera sozietario desberdinekin (merkataritzakoa edo zibila) fusioak egiteko aukera aurreikusten da, beti ere fusio hori gauzatzea debekatzen duen manu legalik ez bada. Disoluzio eta likidazioaren azterketaren eremuan berriz, orain artean inoiz arautu ez den neurri bati aipamen egiten dio legeak eta horren inguruko argibideak ematen ditu ikerketak. Horren arabera, baja eman duen eta diru itzultzea ukatu zaion bazkideak lehentasun eskubidea bereganatuko du ondare sozialaren banaketan. Gainera, liburuak EKL jasotako mota desberdinetako kooperatiben artean desberdintzen du eta bakoitzaren azterketa sakona egikaritu du. Kooperatiben eraketan modu inperatiboan bete beharreko araudia aurkitzen da, baina ondoren sortutako kooperatiba motaren arabera, bakoitzarentzat jasotako arauketa propioa errespetatu beharko da. Hori dela eta, EKGK burututako argitze lana oraingo eta etorkizuneko kooperatibentzat oso lagungarri izango dela uste da.

Aipatu bezala glosaren antolaketa egokia da, aurkibidea argia den heinean eta EKL arautzen duen guztiaz aritzen den heinean. Aitzitik, lege berriaren izandako aldaketei zentzua ematen dion arren, kritika eraikitzaileari leku gutxi ematen diola uste da, legearen deskribapena burutzen delako eta neurri horien inguruan ez bairik adierazten ez delako. Alabaina, EKGK erakundearen eragina kooperatiben arauketan nabaria da, Euskal Gobernu zein bestelako Administrazioentzat lan egiten bait du. Hori dela eta, glosa-

ren garrantzia eta eragina handia izango da Euskadi mailan. Lurrealde historikoan aurkitzen diren kooperatiben presentzia handia da eta ondorioz, ulertzen da EKL berriaren interpretazioa egitea beharrezkoa zela.

Amaitzeko esan, Kooperatiben eremuan Estatu mailako arauketaz gain, Autonomia Erkidego bakoitzak bere arauketa propioa daukala eta hori horrela izanik, EKL jasotako berrikuntzak Estatu mailan, zein Erkidego mailan eredugarri izan daitezkeela eta ondorioz, glosan jasotako ekarpenak ere lagungarri izan daitezkeela gainerako legegile zein ikerlariarentzat.